

Beldur tanta bat

Itsasoa beti da geldiezin,
bere burrunbak hain isilezin,
ur tanten dantzan, musikaren erritmo azkarrean,
olatuek harea daramaten gisan
eramaten nauzu,
hormako erjolu baten konpas zaharrean
zuretzat.

Ni nintzen neure buruaren jabe,
itsaso sakon hortan ito nintzen arte;
dantzari bakarti bat izan nahi nuen,
eta olatuek zurrunbilora eraman ninduten.

Ez baitago indarrik
itsasoarena baino gogorragorik,
ez kemententsuagorik.
Benetan nintzena izan nahi nuen,
baina zuk nahi zenuena izan nintzen.

Ur pozoindua amastu nuen,
birikak beldurrez kutsatu, zulatzeraino.
Ur tantek guztiz busti ninduten,
zure lastan bakoitzaren arrastoa ezabatzeraino,
nire izate guztia erdoiltzeraino.

Eta orain ez dakit nor naizen ere,
itsaso garratz honek zure hondartzara narama
baina bertan gehiago galduko naiz,
hondarretan itoko naiz,
zure itsasertzean ustelduko naiz.

Beldurra baita itotzen gaituen itsasoa;
baina agian ni neu naiz beldur guztien ozeanoa.

Ez dut pentsatu nahi,
ez dut sentitu nahi.
Baina berandu da;
oroitzapenak hemen daude,
eta zeharo ito naute.

Itzulezina da.